



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2017/2018 denboraldia

19 ZK.DUN ZIRKULARRA

EUSKADIKO FEDERAKUNDEAREN XXIII. EMAKUMEZKOEN KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin bat, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo araei jarraiki :

1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Izena eman duten hamasei taldeek hartuko dute parte, hurrengo eran bananduta

A) BIGARREN NAZIONAL MAILA

Añorga K.K.E. "A", Athletic Club "B", Aurrera Vitoria C.D., Eibar S.D., Pauldarrak F.K.T. "A", S.D. San Ignacio y Zarautz K.E.

B) EUSKAL LIGA

Arratia C.D., Bizkerre Club, Elorrio C.D., Erandio Betiko Neskak F.K.E., Goierri Gorri F.K., Hernani C.D., Leioako Emakumeak S.F.K.E., Mariño K.E. y Tolosa C.F.

2.- LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da :

1. Fasea

Lehiaketa honetarako 16 taldek izena eman duenez gero, egokiago ematen du klub horiek, lau taldeko lau multzotan banatzea.

Beraz, itzuli bakarreko liga sistemaren arabera jokatuko da.

Hurrengo faserako multzo bakoitzeko txapelduna sailkatuko da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

-2-

2. Fasea

Final aurrekoak

Partida biko kanporaketak, zozketa baten bitartez klasifikatuen artean.

“1” kanporaketa (I Multzoaren garailea III Multzoaren garailearen aurka)

“2” kanporaketa (II Multzoaren garailea IV Multzoaren garailearen aurka)

Finala

Final aurreetako irabazleek jokatuko dute finalean.

Finala Laudioko Ellakuri Futbol zelaian Jokatuko da.

3.- JOKALARIEN ZELAIRAKETA ETA ORDEZKAKETA

Parte hartzen duen mailako taldeak osatzen duen lehenengo taldeko gutxienez bost jokalaria parte hartu behar dute partidaren ihardura osoan zehar. Honetaz gain, bost aldaketa egin daitezke gehienez, zazpi aldagaien artetik.

4.- BERDINKETAK

EFFren Araudi Orokorrek ezarritako moduan desegingo dira berdinketak.

Partidua amaituta, emaitza zeinahi dela ere, penaltiak jaurtiko dira talde bakoitzeko bost derrigorrez, harik eta talde bietako bat irabazle gertatzen den arte. Emaitza hori aintzakotzat hartuko da sailkapen orokorrean izan daitezkeen berdinketak desegiteko azken tresna moduan.

Bigarren fasean eta azkenengo partiduan hainbanapena izan ezker, penalti puntu lantzapenera emango da.

5.- DATAK

1. fasea : maiatzak 6,13 eta 20.

2. fasea : - Final aurrekoak : maiatzak 27 eta ekainak 3.
- Finala : ekainak 9



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

-3-

6.- ARBITROAK

Aurretiazko fasea, Erregional Goreneko arbitroak hautatuko dira partidak zuzentzeko, eta partida jokatzen den lurraldeko federazioko kide izan beharko dute.

Ordainagiria Emakumezkoen Euskal Liga mailako txapelketakoaren zenbateko berekoa izango da.

Finalaurrekoak eta Finala, Nazional mailako arbitroak hautatuko dira partiduak zuzentzeko, eta ordainagiria 115€tako bakarra izango da.

7.- PARTIDEN ORDUTEGIAK

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari. (Fax 94-473.22.21 P. Elektronikoa webmaster@eff-fvf.eus edo EFF web orrian)

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, 15,30tik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Honetaz gain, ordu epea ezartzen da partiduak hasteko, hau da goizeko 10.30tik 13.00tara eta arratsaldeko 15.30tik 18.30ra. Epe honetatik kanpo hasiko dira partiduak, klubaren arteko akordioarekin.

8.- GARAIKURRA

Euskadiko Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

Hogeitabost doluminak talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

-4-


9.- DISZIPLINA BATZORDEA

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroaren aktak, Diziiplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2018eko apirilaren 11an

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

COMPOSICION DE LOS GRUPOS
MULTZOEN OSAKETA

GRUPO I / 1. MULTZOA

- 1- C.D. AURRERA VITORIA
- 2- C.D. ARRATIA
- 3- S.D. SAN IGNACIO
- 4- LEIOA EMAKUME S. FKE.

GRUPO II / 2. MULTZOA

- 1- BIZKERRE CLUB
- 2- GOIERRI GORRI F.K.
- 3- C.D. HERNANI
- 4- TOLOSA C.F.

GRUPO III / 3. MULTZOA

- 1- ERANDIO BETIKO NESKAK
- 2- AÑORGA K.K.E. "A"
- 3- C.D. ELORRIO
- 4- ZARAUTZ K.E.

GRUPO IV / 4. MULTZOA

- 1- ATHLETIC CLUB "B"
- 2- PAULDARRAK FKT "A"
- 3- C.D. MARIÑO
- 4- S.D. EIBAR